

Arartekoaren Ebazpena, 2012ko apirilaren 12koa. Horren bidez, egoitzarako hiri-lurzoruan dagoen lursail bateko baratze-erabilerarako baimena berrikusteko gomendatzen dio Muskizko Udalari.

Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo zuen bere etxebizitzaren ((...)ko (...). zenbakia) ondoko lursailean dagoen baratzeak eragiten dizkion eragozpenen berri emateko asmoz. Erreklamazioan aipatu zigunaren arabera, lursail horretan garatzen den baratze-jarduerak eragozpenak sortzen ditu, bereziki simaurra zabaltzerakoan.

Interesdunaren kexa eragiten duena 2011ko apirilaren 19an Muskizko Udaleko Gobernu Batzarrak ebazpen bidez autokontsumorako baratze gisa erabiltzeko emandako udal-baimena da.

2. Erreklamatazaileak azaltzen duenez, nekazaritza-erabilera horrek usain txarra eragiten du eta lursailaren osasungarritasun-baldintzei eragiten die, eta gainera, Muskizko Plangintzaren arau subsidiarioetan ez omen da mota horretako erabilerarik xedatzen lurzoru mota horretarako.

Aipatzen duenez, salaketa jarri zuenean Muskizko Udalak esku hartu zuen eta lursaileko nekazaritza-erabilera bertan behera uzteko agindu zuen. Horren inguruan, udal bulego teknikoak 2010eko uztailaren 13an emandako txostena aipatzen du, bertan beren-beregi adierazten baita hiri-lurzoru sendotuan dagoen lursail horretan ezin dela nekazaritza-erabilerarik egin. Udal-irizpide horri jarraiki, 2010eko uztailaren 20an tokiko Gobernu Batzarrak nekazaritzako edo/eta abeltzaintzako erabilerak edo dagokion udal-lizentziak babesten ez dituen erabilera guztiak berehala bertan behera uztea erabaki zuen.

Jakinarazpen horretatik sei hilabete baino gehiago igaro ondoren, jardueraren sustatzaileak berraztertze errekurtsoa jarri zuen ebazpenaren kontra. Hori ikusita, 2011ko apirilaren 19an tokiko Gobernu Batzarrak aurkeztutako errekurtsoa onestea eta lursaila autokontsumorako baratze gisa erabiltzea baimentzea erabaki zuen. Idazkaritza Orokorrek emandako kontrako txostena (errekurtsoa horretarako dagoen hilabeteko epea amaitu ondoren aurkeztu zen) eta nekazaritza-abeltzaintza erabilera hori mota horretako lurzoru-erabilerarako aurreikusten ez dela dioen udal-arkitektoaren txosten teknikoa kontuan hartu gabe hartu omen zen erabaki hori.

Ebazpenak udaleko abokatu aholkulariaren txostena jasotzen zuen; haren arabera, aipagai duguna ez da benetan nekazaritza-ustategia. Txostenak defendatzen du autokontsumorako baratze-erabilera baimendu daitekeela baldin eta ez badu inolako instalaziorik edo ondoko jabetzetan immisiorik egitea eskatzen.

2. Erreklamazioa izapidetzea onartu ondoren, gaiari buruzko informazioa eskatu genion Muskizko Udalari, baratze-erabileraren eta hirigintzako egungo erabileren arteko bateragarritasunari eta simaurra botatzea edo lursailaren eta haren inguruaren osasungarritasunari eragiten dieten bestelako ekintzak ekiditeko hartutako neurriei buruzkoa, hain zuzen.

Gure eskariari erantzunez, alkateak espediente administratiboaren kopia osoa helarazi digu besterik gabe. Espediente hori kexa eragin duen ebazpena emateko oinarritzat hartu ziren txosten tekniko eta juridiko ezberdinek osatzen dute.

Erreklamazioa kontuan hartuta, eta kexaren planteamendua zein udalak igorritako informazioa aztertu ondoren, honako gogoetak helarazi nahi dizkizugu:

Oharrak

1. Kexa honen eragilea (...)ko (...9. zenbakidun partzelan nekazaritza-erabilera berehala bertan behera uzteko agintzen zuen ebazpenaren kontra jarritako berrezartzeko errekurtsua onetsi zuen 2011ko apirilaren 19ko ebazpena da.

Ebazpen horrek lursail horretan nekazaritza-erabilerak debekatzen zituen aurreko udal-irizpidea berrikusi eta autokontsumorako baratze-erabilera baimendu zuen.

Erreklamatzailerak ez dago ebazpenarekin ados, denboraz kanpo aurkeztutako errekurtsua onartzen duelako eta lursailean nekazaritza-erabilera onartzen duelako udal teknikariaren irizpideari kontra eginda. Kexaren sustatzaileak uste du esku hartu behar dela baratzearen ustiapenak eragiten dituen kalteak ekidite aldera (simaurra erabiltzea, usain txarra eta bere etxebizitzan intsektuak ugaritzea).

2. Muskizko Udalak, udal-aparejadorearen irizpideari jarraiki, lursail hori egoitzazko hiri-lurzoru sendotuan dagoela onartzen du. Mota horretako lurzoruan baimendutako erabileren artean ez dira nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak sartzen.

Horrexegatik, nekazaritza-erabilera eta lizentziak bere gain hartzen ez dituen gainontzeko erabilerak bertan behera uzteko agindu zuen 2010eko uztailaren 20ko ebazpenean, eta beraz, lursailean simaurra zabaltzea debekatu zuen.

Ebazpen horrek (bertan behera uzteko aginduak) jarduera klandestinoak legeztatzeke espedienteari hasiera eman zion Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (LHL) 221 artikuluko xedapenei jarraiki. Prozeduran aurreikusten diren urratsak honakoak dira: erabilera klandestinoa geldiaraztea, lizentzia-eskabidea aurkezteko epea zabaltzea, eta

kasuan kasuko ebazpen administratiboa ematea, dela erabilera legeztatuz (2/2006 Legearen 221.5 artikulua), dela behin betiko etetea aginduz (2/2006 Legearen 221.6 artikulua).

Hala ere, erabilera bertan behera uzteko ebazpena emateak ez zuen erabilera legeztatzeke proiektua aurkezterik ekarri, eta erabileraren sustatzaileak ez zuen bidezko epean eta moduan aurkeztu errekurtsua.

Esan beharra dago jardueraren sustatzaileak erakutsi zuen pasibotasunaren aurrean udalak 2/2006 Legearen 221.5 artikuluan jasotakoari jarraiki jokatu eta erabilera legezta ezina behin betiko etetea agindu behar zuela.

3. Ebazpenean finkatutako epea iragan ondoren, jardueraren sustatzaileak berrezartzeko errekurtsua aurkeztu zuen ebazpenaren aurka, eta baratzearen erabilera aisialdiko jarduera gisa legeztatzeke aukera eskatu zuen.

Errekurtsua epez kanpo aurkeztu zela adierazteko Idazkaritza Orokorrak emandako txostena eduki arren, Udalak errekurtsua izapidetzea onartu zuen. Gure erakundea bat dator Idazkaritzaren irizpidearekin. Udalak hartutako erabakiak Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 117. artikuluan xedatutakoa urratzen du, hilabeteko epea aurreikusten baitu errekurtsua ezartzeko. Horrek ondorio nabarmenak ditu, izan ere, 30/1992 Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozeduraren Legearen aginduek ezarritakoa jarraitu gabe hartutako erabakiak zuzenbidean baliogabeak dira.

4. Bestalde, Gobernu Batzarrak berrezartzeko errekurtsuaren inguruan emandako ebazpenak ez dio jaramonik egiten baratze-erabilera legezta ezina dion udal-txosten teknikoari. Txostenak jakinarazten du egoitzarako hiri-lurzoru sendotu gisa sailkatutako lurretan ez dela nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarik onartzen. Txostenaren arabera, aisialdirako baratzeak nekazaritza-erabilerari loturiko lurzoru ez-urbanizagarrien barruan arautzen dira.

Erabakia berrikusteko orduan udal-organoak kontuan hartutako justifikazioak beste txosten bat du oinarri, udal-aholkulariak emandakoa, hain zuzen. Bertan adierazten denez, etxebizitza bati loturiko lurzoru batean egiten den landaketa denean, posible da autokontsumorako baratze-erabilera baimentzea, baina debekatuta egongo da eraikuntza-lanik egitea eta ondoko lursailei inolako eragozpenik eragitea.

Kasu honetan aipatu behar dugu hirigintza-lizentziak, araututa daudenez, hirigintza-plangintzako aurreikuspenen arabera bakarrik baimendu ahal izango direla, hots, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 23. artikuluari jarraiki. Hizpide dugun kasuan, udal aparejadoreak beren-beregi adierazi du hiri-lurzoru sendotuan dagoen lursail horretan nekazaritza-

erabilera ez dagoela baimenduta. Ebazpena emateko kontuan hartutako txostenak ez dio jaramonik egiten udal-irizpide teknikoari eta profesionala ez den edo aisialdikoa den nekazaritza-erabileraren kategoria xedatzen du, baina kategoria horrek ez du babesik plangintzaren ebazpenetan.

Gure ustez, nekazaritza-erabileran egiten den edozein sailkapen beren-beregi sartu behar da udal-plangintzaren ebazpenetan udal-antolamendua aldatzeko aurreikusitako arauei jarraiki. Kasu horretan komenigarria litzateke eskudun organoak erabilera horrek barne hartu beharreko baldintzak arautzea (lehendik dagoen eraikin batekiko lotura, gehieneko gainazala eta besteri eragindako kalteak arintzeko neurri zuzentzaileak bete beharra). Nolanahi ere, aisialdiko erabilera horrek ez luke hondakinik edo kutsa dezaketen nahiz beste pertsona batzuei zein ingurumenari kalteak eragin diezazkieten bestelako osagaiak erabiltzea ekarri beharko.

5. Ondorioz, aurreikusitako epetik kanpo aurkeztutako berrezartzeko errekurtsua izapidetzea ez dator administrazio-prozedurari buruzko legediarekin bat. Halaber, ez da bidezkoa hiri-lursail horretako nekazaritza-erabilera udal-irizpide teknikoari eta udal-plangintzaren xedapenei kontra eginda legezkatzea.

Erabilera klandestinoen kasuan jarraitu beharreko prozedura aipatutako 2/2006 Legearen 221. artikuluan xedatutakoa da. Horren arabera, legezkatzeko espedientea ireki behar da, alegazioak eta, hala badagokio, erabilerak legezkatzeko proiektua aurkezteko epea ireki behar da, eta ondoren Udalak gaiari buruzko ebazpena eman behar du.

Horregatik guztiagatik, eta erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

Muskizko Udalarentzako 54/2012 GOMENDIOA, apirilaren 12koa

Egungo plangintzako xedapenen kontrakoa denez, hirigintzako araudian aurreikusitako prozedurak baliatuta (...)ko (...). zenbakian dagoen lursailean baratze-erabilera egiteko eman zuen lizentzia berrikus dezala gomendatzen diogu.

Baldin eta Udalaren ustez interes publikokoa bada hiri-lurzoruan aisialdiko baratze-erabilera onartzea, hirigintza-antolamendua aldatzeko aurreikusitako arauei jarraiki aldaketa hori udal-plangintzaren xedapenetan sartzea sustatu beharko du beren-beregi.